


Aretxagazeta

Aretxabaleta ● 2001eko martxoak 9 ● 209. zka.




Berdintasunaren atzetik

Iturririk iturri Joseba Larrinaga eta Ramon Eraña ● Iritzia: Resu Masola

Gemes

estetika zentrua



GORPUTZEKO TRATAMENDUA:

zelulitisaren aurkakoa

lodihasuna

zirkulazio arazoak

lasaigarria

drenajea

reafirmatzailea

erditze ondokoa

"TERMOESTIMULAZIOA"

Teknika berria

Udaberrira begira zainketak

- ✓ Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza
- ✓ Depilazioa argizari beroaz eta hotzaz. Dekolorazioa
- ✓ Behin betirako makilajea bekain eta espainetan
- ✓ Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongaiak...
- ✓ Azalaren garbiketa: adinaren eta zimurren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a)
- ✓ Ordezko azazkalak (natural-naturalak) manikura eta aplikazioa
- ✓ Pedikura
- ✓ Dieta pertsonalizatuak
- ✓ Betileen tindaketa
- ✓ Solarium-a

Durana, 40 2 - ARETXABALETA
Tel.: 943 79 99 18



AZKARATE

ARROZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA
Tel.: 943 76 47 19
ARETXABALETA 943 77 01 24

Ateak,
leihoak,
horma armairuak,
tarimak
eta
parketak



Etxeko lanak zela banatzen ditzuzue? Gizonak ala emakumiek eitten dau lan gehixau etxien?



Enkarna Galvan

Semiekkin bakarrik bizi naz. Lan asko neuk eitten dot etxien, baina semiak be eitten ditte batzuk. Bazkaixa, adibidez, neuk eitten dot, eta neuk ein neiken bittartien hobeto.



Jose Luis Maqueda

Gauza batzuk eitten ditut, baina gehixena amak. Nik ohea egin, logela txukundu, mahaixa ipini... eitten dot. Dana dala, Donostian bakarrik bizi izen naz denbora askuen, eta han nik eitten nauen dana.



Maria Candela

Neuk eitten dot etxeko lan gehixena. Oin jubilaute gaz senarra eta bixok, baine lehen bixok lanien genbiltzenien etxeko biherretaz neu arduraketan nitzen. Oin be igual jarraitketan dou.




Cesar Martin

Andreak goizez eitten dau lan, eta nik, barrez, arratsalde. Orduen bixon artien eitten dittugu lan danak. Hola izen biheko litzakela uste dot.



Mari Carmen Fraile

Ehuneko ehunean ez die banaketan etxeko lanak. Nire gizonak eitten ditte etxeko lan batzuk, ohia, ontzixek garbitu... Seme-alabek, barrez, eitten daue eurei toketan jatena.



Jose Ramon Lopez

Bai, gure etxian lanak banatu eitten die, ama, aita, amama eta danon artien. Gure etxian betik banatu izen die lanak, eta justue-na horixe dala pentsetan jat.



Mari Jose Sanchez

Erdibana eitten dittugu lanak gizonak eta bixok, baina orokorrien nik lan gehixau eitten dot. Gizonak lan gehixau ein biharko laukie.



Antonio Pilo

Etxien ahal dotena eitten dot, danetik apur bat. Hala ta be, etxien emakumiek mutilek baino lan gehixau eitten dauela uste dot.

209. zenbakia. 2001eko martxoaren 9an.

Azaleko argazkia: Mujeres aldizkaritik hartua

Durana 11, 151 postakutxatila ARETXABALETA. Tel: 943 79 86 21. Faxe: 943 77 18 54 e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkarteak.

Lehendakaria: Edorta Mendieta. Erredakzio-kontseilua: Begoña Arenaza, Arrate Arkauz, Aintzane Lasa, Pello Zubizarreta, Arantza Antxia,

Mireia Urribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre.

Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna: Amagoia Lasagabaster eta Iratxe Bengoa.

Kolaboratzaileak: Mikel Arroioabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia,

Rosa Del Aguila, Murruxiko mendi elkarteak, Zaramendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

Banatzzaileak: Aitor Urrutia, Iratxe Arbulu, Leire Otaegi.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop, Elk.

Tirada: 1.500 ale. Aretxagazeta paper ekologikoan egiten da.

Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

Aretxagazeta



Aretxabaletako
Udala



Gipuzkoako Foru
Aldundia



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila

Hotzari aurre eginez, mozorro ugari aratusteetan

Eguraldi hotzari aurpegi ona jarriz, mozorroz bete ziren kaleak aratuste domekan. Aurten ere, jantziek eta desfileek eman zioten egunari benetako txispa. Durana kalea jendez gainezka egon zen, kukumarroak pasatzen ziren bitartean.

Aurtengo sariak horrela banatu ziren: Nagusietan, 1.a Paterak; 2.a Prozesioa;

3.a Txaranga eta 4.a Peña Gallo. Gazteetan 1.a Pitufoak; 2.a Piratak; 3.a Baserrizahar eta 4.a Tenistak.

Martizen aratustean, burrez, eskolako umeak eta dendariak izan ziren protagonista. Kultura sailak eta jai batzordeak, afaria antolatatu zuten, eta ehun lagunetik gora animatu zen afarira. Jaietara amaiera Txinoaren hiletak eman zien.




■ Aurtean beltzak pateretan eta atzean berdeak "sidecar-ean" (1. saria)



■ Ondo ikusi ete dut, Udako futbolistak prozesioan? (2. saria)



■ Abestu eta dantzan aritu ziren pitufoak (1. saria gazteetan)



■ Itsasuntzi eta guzti etorri ziren piratak herrira (2. saria gazteetan)

sukaldeko altzarien eta horma armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE Tel.: 943 71 25 08

**ZARAIA
TABERNA**

MANTEKA ANAIK

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan
Tel.: 943 79 88 95

HAMABOSTEAN BEHIN

HAMABOSTEAN BEHIN



■ Erle erregina ote?



■ Lizarra galaxy-atik hainbat extra lurta inguratu zen gurera



■ Negu-neguan loratu ziren margarita hauek



■ Goitb-ko aurkezleak fin-fin lanean



■ Batzuk txuletak egiten ibili ziren, eta beste batzuk "txuloarena"



■ Koskorra buruan eta ibili munduan



Leandro eta Jose Mari, Ameriketara lan haundia egindako gizonak

Leandro Zaloña apaiza eta Jose Mari Armentia Murua jesuita joan den otsailean hil ziren. Biak elizgizonak izateaz gain, Hego Ameriketara denbora luzez lanean aritu ziren, Leandro Ekuadorren eta Jose Mari Venezuelaren.

Leandro: Urkiolako haritza

Leandro Zaloña Urkiolako haritza ezizenez ere ezagutzen zuten askok. Antza danez, gizon gogorra eta langilea izateagatik deitzen zioten horrela. 1915. urtean jaio zen Galartzako Zaloña baserrian. Etxetik gertu marianistetan ikasi ondoren, abade ikasketak Gasteizen egin zituen. 1943. urteko ekainaren 29an egin zen abade. Isurietan San Pedro egunez eman zuen

lehen meza, eta gero, Aramaioko Untzila eta Barajuen auzoetan abade lanetan aritu zen. Hemengo lana utzi eta "Los Rios" Ekuadorreko misioetara joan zen 1948. urtean, beste zortzi lagunekin batera. 35 urte egin zituen bertan, hainbat herritan lanak eta proiektuak aurrera eramaten.

Handik itzuli zenean, Urkiolako Santutegian sartu zen, eta hantxe egin ditu bere bizitzako gainontzeko urteak. Abare lanaz gain, diru kontuak, misioetako lanak eta txofer lanak egiten zituen santutegian.

Jose Mari: gizon maitatua

Oso gizon maitatua zen Jose Mari Armentia Venezuelaren. Heziketa eta irakaskuntza munduan lan izugarria egindako jesuita.



Ezkerrean Leandro Zaloña eta Jose Mari Armentia Murua eskumaldean

Jose Mari Gernikan jaio zen 1923. urtean. Baina gazte-gaztetatik aita-amekin Aretxabaletara etorri zen. Loiolako nobiziaduan sartu zen 1951. urtean, eta laster Venezuelara bidali zuten handik.

Berrogeita bost urte luze eskaini dizkio Jose Mari Venezuelako umeak eta gazteak hezitzeari. Tarte horretan, bere lan garrantzitsuenetakoen artean, Guayanako "Loyola-Gumilla" eskola fundatzea izan zen. Lana

gogotik egin behar izan zuen eskola martxan jartzeko. Ez zen lan samurra izan, izan ere, ez zegoen irakasle kualifikaturik, eta bertako gurasoak heziketaren beharraz kontzientziatu behar izan zituen. Oztopo hauei aurre egin, eta kalitatezko irakaskuntza eskaintzera iritsi zen Guayanako herrialdean.

Zuen guztia eman zuen Jose Mari Venezuelako irakaskuntza eta herriaren alde.



Taberna Berri jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
☎ 943 79 20 67

DOIKALSE Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 82 44

PAGALDAI

*Opari denda
Lurrindegia*

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14

ARGAZKI DENDA

Urkiola

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20

Estudioa
Jaunartzeak
Ezkontzak
Argazki digitalekin lanak

Albunak
Argazki kamarak
Markoak...



MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

UMEENDAKO MODA

Lezama merkatal zentrua, 15
943 77 14 86

DOMEKAN ITXIKO DA PARROKIA

Zaharberritze lanak direla eta domeka honetan emango da azken meza herriko elizan. Hemendik aurrera, monjen konbentuan emango dira ohiko elizkizunak. Hileta eta gainontzeko elizkizunak, barrez, Mitarte kalean dagoen baxu batean ematea erabaki da.

GOIENA ETA EUSKARA ELKARTEEN HITZARMENA

Joan den astelehenean sinatu zuten, Bergarako kultura etxean, Goiena komunikazio Zerbitzuak izeneko kooperatibak eta Debagoieneko euskara elkarteek elkarlanerako hitzarmena. Akordio honen bidez, Debagoieneko euskara elkarteek orainarte sortu eta kudeatu dituzten herri hedabideak, Goiena kooperatibaren esku utzi dituzte. Sinadura ekitaldian, Josu Sarasua, Lorramendi E.Eko lehendakaria eta Edorta Mendieta, AKLko zuzendaria izan ziren.



Auzoetako elizen inauguraketak

Martxoaren 4an inauguratu zen Gellaoko Andra Mariaren Zeruratze parrokia. Teilatua konpondu, lurra aldatu eta barrualde guztia margotu ondoren, edarto gelditu da eliza. Hori ospatzeko, inauguraketa festa egin zuten joan den igande-

an. Parrokia zaharberritzeaz gain, inguruak ere txukundu dituzte. Aparkaleku barria eta iturria egin dute Gellaon. Larrinoko San Kristobal eliza, barrez, teilatua aldatu eta elizpea margotu ondoren, domeka honetan inauguratuko dute.



ERROTABARRI BASERRI PAREKO LANAK

Aurrera doaz Errotabarri baserri parean bidea zabaldu eta espaloia jartzeko lanak. Dagoeneko bidearen ezker aldean dagoen pareta bota eta metro batzuk atzerago barria egin dute. Lanak ekainean bukatzea espero da. Bitartean, maia-tzerarte gutxigorabehera, pasabide hori itxita egongo da automobilentzako.

Badator korrika!

"Mundu bat euskarara bildu" lelopean antolatu da aurtengo korrika ekitaldia. Atxabaltara, apirilaren 2an, goizeko 2:05-ean helduko da Arrasatetik bueltan. Hori dela eta, hasi dira dagoeneko herriko euskara eta kultur elkarteak egun horretarako prestaketak egiten. Kultura batzordetik, gainera, guztiok parte har dezagun deialdia egin da.



ARIZMENDIK LIBURUA AURKEZTU DU

"Deba Goiena: aurrera dijon lurraldea" horrelaxe du izena Arizmendi elkarteak aurkeztutako azken liburua. Bertan, bailaran egindako ikerketa sozioekonomikoetan eta demografikoetan oinarriturik, Debagoienak azken 25 urtetan, hezkuntzaren inguruan izan duen bilakera aztertzen da. Liburuaren aurkezpena, atzo egin zen Arizmendiren egoitzan.

MAITE

ileapaindegia

Sarasate, ☎ 943 79 59 05
ARETXABAETA

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALE

Egunero zabalik
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79



■ KONTUZ PATINEKIN

Arrakasta haundia izan du kiroltxean eman den patinaje ikastaroak. Datorren zapatuan izango dute azkenengo saioa, ikastaroan aritu diren 20 lagunek. Mikel Morras irakasleak ere deskantsatzeko aukera izango du. Dena dela, leku falta zela eta, batzuk ezin izan dute ikastaroan parte hartu, eta beste bat antolatzekotan dira udaberri aldera.

■ EDURRAK KUKU

kuku besterik ez digu egin edurrak aurtengo neguan. Joan den astean inguruko bazterrek txuritu zituen, baina ez da luzarorako izan. Eguraldi epelak eta eurriak ez digute edurrarekin disfrutatzeke aukera haundirik eman. Hori bai, baten batzuk pozik ikusiko zituzten elur malutak erortzen.



■ AINGERU GUARDAREN OMENEZ

Aingeru Guarda, Basotxoko zaindariaren eguna, ospatu zuten argazkiko jubilatuek martxoaren 1ean. Hildako bazkideen aldeko meza entzun ondoren, Taberna Berrin izan zuten bazkaria. Ostean, gorputza mugitzeko dantzaldia izan zen.



■ MOZORROTUTAKO KALEJIRA

Aratuste domekan presoan aldeko kalejira egin zen. Manifestazioak herriko kaleak zeharkatu zituen, eta jende ugari batu zen deialdira. Mozorroek giro bikaina eman zioten ekitaldiari.

LEIBAR

arrandegia

Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79



Mobiliario ARENZA

· ALTZARIAK
· DISEINUA
· APAINKETA

Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

G U R E A

taberna
jatetxea

Durana kalea
Tel.: 943 79 20 64

Lasterketa batean partehartzeko aitzakiaz, Saharako basamortura joan ziren duela egun batzuk Ramon Eraña eta Joseba Larrinaga. Biek, hango errefuxiatu kanpamenduetan bizi izandako esperientzia kontatu digute.



Joseba Larrinaga eta Ramon Eraña Saharatik bueltan

■ **Zein helbururekin joan zineten Saharara?**

■ **Ramon Eraña:** Euskal Herrietik 300 pertsona joan ginen. Egia da lasterketa bat egitera joan ginela, baina hori hango herrialde eta kanpamenduak ezagutu eta elkartasunerako laguntza emateko aitzakia besterik ez zen.

■ **Nolakoa izan zen bidaia?**

■ **Joseba Larrinaga:** Nahiko arazo izan genituen, guk elkartasunerako eta laguntza emateko materiala eraman genuen hemendik, eta hegazkinean dena sartzeko topea jarri ziguten. Bestalde, hara heltzerakoan dena antolatuta zegoen, kamioiak eta autobusak zeuden gure zain. Garraio guztiak, Eusko Jaurlaritzak hara eramandakoak ziren. Bitxia izan zen hango bidaiak hemengo Eusko

Tren autobus berdinetan egitea.

■ **Atxabaltatik ze material eraman zenuten?**

■ **J:** Denetarik eraman dugu, baina gehienbat hezkuntzarako kuaderno eta boligrafoak eta emakumezkoentzako materiala bildu genituen. Hala nola, garbitasunerako produktuak eta josteko materiala. Horrez aparte, farmazietan bildutako botikak eraman ditugu, tiritak, espadatruak... Baita diru apur bat ere. Bide batez laguntza eman diguten herritar guztiei gure esker ona adierazi gura genieke

■ **Nolakoak dira paraje haiek?**

■ **R:** Gu, Aljeria parteko errefuxiatu kanpamentuetan egon gara. Hura Aljeriako lurralderik pobreenetakoa da, guztia basamor-

tua da, eta ez daukate inongo errekurtsorik naturalik. Egunez bero egiten du eta gaez, barrez, hotz. Hala ere, gauak ikaragarri politak dira, zerua izarrez beterik ikusten da. Egunez, baina, haizea dago eta area edonon zabaltzen da.

■ **Nola bizi dira hangoak?**

■ **J:** Han ez daukate ez urik ez eta beste inongo errekurtsorik, beraz, lan handirik ezin dute egin. Ahuntzak eta astoren bat edo beste daukate, baina ezer gutxi. Laguntza guztia kanpotik heltzen zaie.

■ **Nork ematen die laguntza?**

■ **J:** ONU erakundeak, estatu desberdinetako gobernuak kanpoko erakundeak eta hainbat gobernuak. Fronte Polisariokoek, enbaxadore antzekoak bidaltzen dituzte herrialde desberdinetara

laguntza bila. Gero jasotako guztia, beraiek bideratzen dute.

■ **Zer moduzko esperientzia izan da?**

■ **J:** Ni harriturik gelditu naiz, horren errekurtsorik gutxi dituen herri batek, zer nolako antolaketa ona duen ikusterakoan.

■ **R:** Esperientzia polita izan da, hango jendeak, gauza gutxiarekin zein pozik bizi daitekeen, erakutsi dit niri.

■ **Politikoki zein egoeratan daude?**

■ **R:** Gaur egun, ONUrekin hitzartutako bake aldiaren daude. Fronte Polisariokoek orainarte errespetu handiz bete dute bake epe hori, baina, trukean ez dute erantzunik jaso. Autodeterminazio eskubidea noiz aitortuko zain daude. Hala ere, gutxi falta zaie berriz ere gerran hasteko.

Atxabaltarron ikuspegi diferentek harrituta naukate

Laster "Plan Estrategiko" gabeko herririk ez da izango. Gaurkotuta egoteko etorkizuna izan behar da buruan eta hartara iristeko planifikatu. Atxabaltarrok, salbatuta gaude, dena egina izango dugu. Ezagutzero ematen denean denetik entzungo da. "A zelakotxe lana egin dute", "Beti berberak saltsa guztietan". "Zelan erabaki ote dute hori? Seguru interesak egon direna".....

Ni, horretan parte hartzen nabil. Izan ditut eta eduki dauzkat proposamenak egiteko aukerak. Nahastuta ere egoten naiz aurrera egin ahala nire ustetan gizarterako oinarritzko denak "kuorum-nik" ez duenean. Atxabaltarron ikuspegi diferentek errealitatera nakarte baina ni neu harrituta naukate.

Inoiz baino egoera ekonomiko hobea, inoiz baino zerbitzu gehiago eta hobeak eskeintzen diren une honetan gizakiok harremanetan eta konpromezuetan huts egiten dugu.

Lehendik ere herriaren itxurak, auzo ederrak, maila guztietako etxebizitzak, puntako teknologia sustatzen zuten enpresa berriak ziurtatuta zeuden eta hala jarraitzen dute oraindik ere, hori bai hobeto antolatuta eta aurrerakoiagoak, baina denon ahotan jarraituko dute gure kultur ondarearen sena adierazten duten ohituren egoera larria, herriko kultur ekintzekiko interes falta, herriko frontoiaren egoerak, kale eta ikastetxei nahita egindako kalteak....

Errezagoa da, geuk erabaki baitugu, aurrekontuak onartu eta arkitekto on bat kontratatu eraikuntza ederrak egiteko pertsonon inplikazioan eta gaitasunak garatzean erreparatzea baino, honek ez baitu ez adinik, ez ordurik eta ez egunik. Eta honetarako "arkitekturik" ez. "Errezagoa da jokaera desegoki bat ikusten dugunean urruntzea han eta hemen kuxkuxeatuz, hurbildu eta kontura araztea baino.

"Hori ez dagokio ba hezkuntzari?" erantzungo didanen bat izango da. Bai horixe, eta honek jaiotzetik heriotzaraino dirau eta gai gara izan harreman interpertsonaletan eragina izateko, baina hau ez da lortzen aurrekontuetako partidekin, bai ordea norberaren borondatearekin.

Resu ABASOLO GALLASTEGI



Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
Bertako okina

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea ☎ 943 77 03 08

Aretz taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 20 14



Sexuaren gainetik pertsona bakoitzaren ahalmen profesionala hartu behar da kontuan

Emakumeak gizonen parean lanean

Martxoaren 8an emakumearen eguna ospatzen da. Bakoitzak egun horretan nahi duen aldarrikapena edo salaketa egin dezake. Guk, barrez, ondorengo erreportajean, sexuen arteko berdintasunaren alde egin dugu. Horretarako, urte luzeetan gizonen lanak kontsideratu izan diren beharretan ari diren emakumeei egin diegu elkarrizketa. Hona hemen gaur egungo lau emakume.

Joan zaigun mendearen hasieran, gertaera ikaragarri bat gertatu zen Chicagon. Emakume talde batek lan egoera hobetzeko eskaera egin zion nagusiari. Ugazabak, barrez, emakumeon eskariaren aurrean hauen eskubideak kontuan hartu eta amore eman beharrean, lantegiari

su eman zion, barruan protestatzeko itxialdian zeuden emakume denak errez. Harrezkero, martxoaren 8an emakume langilearen eguna ospatu izan da mundu osoan. Ehun urtetan, gauzak asko aldatu dira, eta orain lan munduan emakume bat arduradun karguan ikusteak atentzioa

deitzen badu ere, argi izan behar dugu guztiok, sexuaren gainetik pertsona bakoitzaren ahalmen profesionalak hartu behar direla kontuan. Horren adierazgarri ondorengo lau emakumeak dira: Olaia Etxenagusia, udaletxeko aparejadorea; Sokorro Unanue, udal zinegotzia; Elisabeth

Urrutia, Diara enpresako zuzendaria eta Maria Pilar Garcia soldadura ikaslea. Oraingoan, erreportaje hau egiteko 4 emakume hartu ditugu kontuan. XXI. mendean, baina, herriko emakume langile ugari izan zitezkeen erreportajearen protagonistak. Beraz, hauei ere gure zorionak!



ELISABETH URRUTIA

DIARAKO zuzendaria

"Erronka barriak gustatzen zaizkit eta beti borrokatu izan dut horien alde"

Arkitektura ikasketak egin zituen Elisabethek. 1986. urtean beste hiru lagunekin Diara lantokia sortu zuen, eta ordutik hantxe dihardu lanean. Horietatik azken 7 urte zuzendaritza postuan egin ditu.

■ Umetan horrelako postu bat edukitzea amesten zenuen?

■ Ez, inoiz ez nuen imaginatuko lantoki batetako zuzendari izango nintzenik. Gainera, arkitektura ikasketak egin nituenean etxeak egingo nituela pentsatzen nuen, eta oraindik ez dut etxe bakar bat ere egin. Hala ere, gaztetan ez nuen bokazio finkorik. Hori bai, betidanik gustatu izan zaizkit erronka barriak, eta beti borrokatu izan dut horien alde.

■ Nolakoa da zure ohiko lan egun bat?

■ Goizeko zazpietan jaiki eta umeekin gosaltzen dut. Jarrera lanera etorri eta arratsalderarte egoten naiz Diaran. Bazkaltzeko dudak unean, batzutan erosketak egiten ditut etxerako. Arratsaldean etxera heltzean garbigailua jartzen dut. Gauean, umeak dutxatu, eta etxerako lanak egiten laguntzen diet. Orain 13-14 urte dituzte eta nahiko ondo moldatzen naiz. Txikiak zirenean, barrez, denera heltzeko larri ibili nintzen. Hala ere, sekula ez dut utzi ez nire lana, ez eta nire etxeko ardura.

■ Lanean bizi izan duzu aparteko egoerarik emakume eta gainera zuzendaria zarelako?

■ Bai, askok telefonoz deitu eta zuzendariarekin hitzegin gura dutela esatean ez dute sinisten zuzendaria ni neu naitzenik. Askok idazkari bezala hartzen naute. Gainera, beste lantoki batera beste mutil batekin banoa, hari begiratzen diote azalpenak ematerako orduan. Inoiz ez dute pentsatzen, emakume bat zerbaiten arduradun izan daitekeenik.

■ Emakume langilearen eguna ospatzen duzu?

■ Ez, ez dut ospatzen, baina, lantokian beti gogoratzen dugu egun hau. Ez aldarrikapen moduan, baizik eta etorkizunera begira emakumeek izango dugun indarra gogoratzeko.

M^a PILAR GARCIA

Soldadura ikaslea

"Emakumezkoek bide luzea egin behar dugu, oraindik berdintasuna lortzeko"

Maria Pilar 25 urteko neska atxabaltarra da. Umeak zaindu eta tabernan lan egiteaz asperturik zegoen, eta horregatik hasi zen soldadura ikastaroa egiten. Bere nahia, tailer edo lantoki batean sartzea da.

■ Ez zaizu iruditzen soldadura mutilen lana dela?

■ Eta zergatik ez emakumezkoena?

■ Ez da indar handia behar?

■ Ez, burdin piezak hara eta hona mugitzeko makinak daude. Beharbada, lehenago emakumezkoek ezin izango zituzten lan hauek egin, baina orain dauden aurrerapenekin edozeinek egin dezake lan hau.

■ Arazorik izan duzu ikastaro hau egiterakoan?

■ Arazorik ez, baina hasieran ikasi arte gaizki egiten dituzu lanak, eta lan hau egiteko gai ez ote nintzen pentsatu nuen.

■ Etorkizunean ikusten duzu zure burua horrelako lan batean?

■ Bai, ez litzaidake axolako, gainera jendeak azkar aurkitzen du lana ikastaro hau eginda gero. Joan den urtean, 14 neska aritu ziren, eta guztiak aurkitu dute lana.

■ Orain, zure gurasoen belaunaldian baino berdintasun haundiagoa dago emakumezko eta gizonezkoen artean?

■ Bai, baina oraindik bide luzea egin beharra dago berdintasuna lortzeko.

■ Zure etxean berdintasunean hezi zarete anai-arrebak?

■ Ez, neska izateagatik lan desberdinak egitea tokatu zaizkit. Garbitasunak, bazkariak gertatzea... horrelakoak.

■ Ospatu duzu Martxoaren 8a?

■ Bai zerbait berezia egin genuen egun horretan.





SOKORRO UNANUE

Udal zinegotzi eta kooperatibako langilea

"Lan banaketa egin arren, etxeko ardura gehienak emakumezkoarenak izaten dira"

Herriko udaletxean ez dira emakume ugari ibili zinegotzi lanetan, horietako bat, legealdi honetan kultura zinegotzi moduan dabilena, Sokorro Unanue da. Sokorrok, kooperatiban 8 orduko lana, etxeko lanak eta udal zinegotzi lanak egiten ditu.

■ **Nola egin ditzazkezu horrenbeste lan?**

■ Antolaketa kontua da, lehenago beharbada nire alabak gazteak zirenean arazo gehiago izaten nituen lana eta aldi berean familia gobernatzeko. Gaur egun, barrez, ondo antolatzen dut dudana denbora. Hori bai, goizeko zazpitan jaiki eta egun guztia kanpoan ematen dut. Udaletxeko lanak, esaterako ez dira horren lotuak, astean bilera bat edo bi izaten ditut.

■ **Eta zeure buruarentzako noiz hartzen duzu astia?**

■ Oso gutxitan, baina esan behar dut, lanean oso ondo sentitzen naizela. Askotan botatzen dut faltan mendira edo beste zerbait egiteko denborarik ez edukitzea, baina, era berean, nire lanak asko betetzen nau.

■ **Zergatik daude horren emakume gutxi udaletxean?**

■ Ez dugulako gura. Ni hautatu nindutenean emakume gehiago ere bazeuden zerrendan, baina inork ez zuen zinegotzi izan gura. Horrelako kasu askotan, emakumeak gara ardura horiek atzera botatzen ditugunak.

■ **Zinegotzi bezala izan duzu arazorik emakumea zarela?**

■ Ez inoiz ez dut arazorik izan.

■ **Zure etxean banatzen dituzue lanak?**

■ Bai, ezin naiz kexatu. Hori bai, gazteei bezala bikoteari ere erakutsi egin behar zaio lanak egiten. Eta hala ere, ardura gehienak emakumezkoarentzako izaten dira.

■ **Martxoaren 8a ospatu duzu?**

■ Ez, ez dut sekula egun hori ospatu eta aurten ere ez dut ezer egin.

OLAIA ETXENAGUSIA

Arkitektu teknikoa

"Eraikuntza munduan oraindik ere ez daude emakumeak ikustera ohituak"

Argi zeukan Olaiak ikasketa teknikoak egin gura zituela, horrela, ingeniari baztertu ostean arkitekto tekniko ikasketak egin zituen Iruñan. Orain, 25 urterekin udal aparejadorea da.

■ **Unibertsitatean neskak ala mutilak zeuden gehiago zure gelan?**

■ Erdi eta erdi, baina aurreko promozioan neskak gehiago zirela uste dut. Hala ere, ondo gogoratzen dut unibertsitateko emakumezko irakasle batek gizonzkoen munduan sartu ginela, eta espabilatzeko esan zigula hasieratik. Bere hitzetan, neskak lan honetan beti erakutsi beharko dugu gizonen baino gehiago.

■ **Zure lanean izan duzu arazorik emakume izateagatik?**

■ Arazoak ez, baina edozein obretara noala, bada begirada arraroak botatzen dizkidanik, nora doa neskatila hori? hori da askok pentsatzen dutena. Behin gogoratzen dut, neurketa bat egiterakoan, gizon batek zikindu egingo nintzela eta berak egingo zuela esan zidala. Edo teilaturen batera igotzerakoan guztiak esaten didate kontuz ibiltzeko edo ez igotzeko.

■ **Horrelakoak entzutean zer egiten duzu?**

■ Ezer ez, baina konturatzen naiz eraikuntza munduan oraindik ere, ez daudela emakumeak ikustera ohituak. Lan hori gizonzkoena kontsideratzen da.

■ **Inoiz utziko zenuke lana haur bat izateagatik?**


■ Ez, biak batera eraman beharko ditut, baina ez nuke lana utziko. Gainera niretzat, lanak bezain garrantzia handia dauka familiak. Hori da nire etxean ikusi eta ikasi dudana. Hori bai, familia eta lana batera eramateko bikotearen laguntza beharrezkoa da.

■ **Udaletxean emakume asko ibili dira zure lanean?**

■ Ez, ni baino lehenago beste mutil bat egon zen, baina nik dakidala ni naiz aurreneko neska.

■ **Ospatzen duzu Martxoaren 8a?**

■ Ohitura moduan lagunekin eta udaletxeko langileekin bazkari eta afariak eginez ospatzen dut.





Mendia

Alpeetako grabaketak atzeratu. Eguraldi txarraren ondorioz, Alpeetan egin behar zituzten grabaketa lanak atzeratu egin zaizkie Alberto Iñurrategi eta gainontzeko taldekideei. Orain eguraldia noiz hobetuko zain daude. Dena dela, oraindik hilabete osoa dute, grabaketa lanak egiteko. Apirilean, bestalde, beste grabaketa batzuei ekingo die taldeak, Jordanian. Wadi Rum haitzetako eskalada, eta ingurua batuko ditu dokumentalak.



Futbola

Udak, hiru partidu jarraian irabazi. Hiru partidu jarraian irabazi ditu Prefereente mailako Udak. Aurrekoan lau gol sartu zizkion Enrique Nietoren taldeak Segurari. Lurrek eta Zangituk gol bana sartu zituzten, eta Andoni Rodriguez bergararrak beste biak. Garaipen hauekin Udak garrantz egin du sailkapen orokorrean, 8. postua lortuz. Beheko postuetatik urten du taldeak, baina oraindik 11 partidu gelditzen zaizkie.



Txirrindularitza

Zikloturistek hasi dute denboraldia. Eguraldi txarra izan zuten zikloturistek, joan den domekan denboraldiari hasiera emateko. Urtero legez, Dorletako Ama txirrindularien zaindariari lore eskaintza egin zioten. Denboraldia hasi ondoren, txirrinduari heltzeko gertu daude zikloturistak. Egutegiaren arabera domekero izango dute urteera bat. Lehena datorren domekan izango da. Gasteizera joan-etorria egingo dute.



Pilota

Uriarte eta Oion final laurdenetara. Udaberriko txapelketako ligaskan bigarren postuan bukatu ondoren, final laurdenetarako sailkatu dira Sergio Uriarte eta Odei Oion pilotariak. Datorren domekan jokatuko dute sailkapeneko lehen partidua Azpeitiko Ilunpe taldeko pilotarien aurka. Partidua eguerdiko 12:00etan hasiko da Iturrigorri frontoian. Ondoren bueltako partidua jokatuko beharko dute azpeitiarren aurka.

Julen Galiano eta Jon Rodriguez Dorletako Ama taldeko txirrindulariak dira. Iaz hasi ziren biak taldean korritzen. Julenek 11 urte ditu, eta zirkuito itxietan korrituko du aurten. Jon, barrez, nagusia-goa da, 14 urte ditu, eta karrera irekietan lehen esperientzia izango du aurtengoa.

■ **Zelakoa izan zen iazko denboraldia?**

■ **Jon:** Iaz zirkuito itxietan korritu nuen, eta oso gustura aritu nintzen. Zirkuito itxiek esperientzia hartzeko, eta kirola zelakoa den ikusteko laguntzen dute. Dena dela, proba gogorrak dira oso, karrerak irauten dituen hamar minutuak ia sprintean egiten baitira.

Julen: Esperientzia polita izan zen iazkoa. Aurten ere zirkuito itxietan korrituko dut. Beraz, mota horretako karreretan bigarren urtez arituko naizela kontuan izanda, aurten hobeto aritzea espero dut.

■ **Zenbat entrenatzen duzue astero?**

■ **Jon:** Astean bi egunetan izan ezik, gainontzekoetan egunero aritzen naiz bizikletan. Egun bakoitzeko entrenamenduak desberdinak izaten dira, portuak igo, hurrengoan karrera azkarrak egin... Normalean Landa aldera joaten gara entrenamenduetan.

■ **Julen:** Nik astean bi egunetan entrenatzen dut. Trafiko gutxiko bideetan korritzen ahalegintzen naiz, Aramaioko bidea nahiko egokia da horretarako.

■ **Aurtengorako zein helburu jarri diozue zeuen buruari?**

■ **Julen:** Karrerak bukatzea eta ahalik eta ondoen pasatzea izango da, denboraldi barrirako nire asmoa.

■ **Jon:** Aurten zirkuito itxiak alde batera utzi, eta karreretan korrituko dut. Esperientzia barria izango de-

nez, nire helburua karrerak amaitzea izango da.

■ **Kirol gogorra da?**


■ **Jon:** Bai, oso gogorra eta sakrifizio handia eskatzen duena. Gainera, karreretan atzean gelditzen bazara, epaileak zigortu egiten zaitu, eta karreratik kanpo utzi. Horrek min eta pena izugarria ematen dio txirrindulariari.

■ **Gazteak animatuko zenituzkete txirrinduan ibiltzera?**

■ **Julen:** Bai, niri asko gustatzen zait txirrinduan ibiltzea, eta gure artean oso giro ona dago. Ondo pasatzen dugu, batez ere, taldean entrenatzen dugunean.

■ **Jon:** Horrez gain, satisfazio handia lortzen da, karrerak bukatutakoan, edo eta, portuak igotzen direnean. Ni behintzat oso gustura ari naiz txirrindularitzan, eta kirol bat egin eta dibertitzeko helburuaz praktikatzen dut.

Julen Galiano eta Jon Rodrigez Dorletako Ama taldeko txirrindulariak



Leixargarateko txabola astebukaerero beteta

Leixargarateko txabola egin zela 30 urte beteko dira aurtentzen. Denbora horretan makina bat herritar pasatu da bertatik, eta astebukaera gehienetan okupatuta egoten da. Iaz esaterako 516 lagun pasa ziren txabolatik. Imanol Etxabe gaur egungo

arduradunak jakinarazi digunez, jendea astebukaerak pasatzera joaten da batez ere Leixargaratera. Hala ere, bada astean zehar joaten denik ere, ikasleak opor garaian esaterako.

Batez ere, Aretxabaletako herritarrak dira txabola era-

biltzen dutenak. Murruxiko edo Udako bazkide izatea beharrezkoa da horretarako. Bazkideek 450 pta ordaindu behar dute, eta gaintontzekoek 650 pta. Lekua eta giltzak hartu eta entregatzeko eguaztenetan 18:30etik 19:30era bitartean egin daiteke Murruxikoko lokalean.

Giltza hartzen duenak, beregain hartzen du, txabola lehen moduan uzteko ardura. Alde horretatik, Imanolek ez du orain artean arazo haundirik izan. Orokorrean jendeak arauak errespetatzen ditu, "eta hara doan badaki txabola aurkitu zuen bezala utzi behar duela".

Imanolek iaz hartu zuen txabola ardura, eta dagoen eskaria ikusita, lekua hartzeko argi ibili

behar dela azpimarratu digu. Aurtengo urterako dagoeneko % 30ean okupatuta dago. Beraz, joan gura izanez gero, hilabete batzuk lehenago izena ematea komeni da.

Pistak erabiltzeagatik borondatezko kuota

Hemendik aurrera Leixargarateko txabola erabili, eta bertara ibilgailuan Bolibar-kopistatik igotzen direnek, borondatezko kuota bat ordaindu beharko dute. Orain artean, baserritar, artzain eta ehiztariak ordaindu izan dute kuota hori, pistak egoki mantentzeko helburuz. Aurrerantzean Murruxikok ere kuota ordainduko du. Beraz, txabolara ibilgailuz igotzen direnei, borondatezko kuota bat ordainazariko zaie.



Iaz 516 lagun pasa ziren Leixargarateko txabolatik

DORLETAKO AMA TXIRRINDULARI TALDEAREN AURKEZPENA

Otsailaren 24an Dorletako Ama txirrindulari taldeak denboraldiaren aurkezpena egin zuen. Urtero moduan Dorletako Ama txirrindularien zaindariari lore eskaintza egin ondoren, Apotzako elkartearen txirrindulariak aurkeztu ziren.

Guztira 16 txirrindulari arituko dira aurtentzen taldean, tartean zazpi atxabaltar.

Fagorreko jubenetan Eneko Perez eta Endika Martin. JMak babestuko duen bigarren urteko kadeteetan, Mikel Arana eta Mikel Katania. Lehen urteko kadeteetan Jon Rodriguez eta Jon Lete mendiolarra. Azkenik, lehen eta bigarren mailako infantiletan Arrasate kirolak taldeko Julen Galiano eta Aitor Mendizabal.



TXILARRA

ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35 - Tfnoa: 943 79 10 15
Loramendi, 9 - Tfnoa: 943 79 44 28

IRIARTE

Umeen
denda
eta
lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

MIREN & ZURIÑE BITXIEN DISEINUA


BITXIEN KONPONKETA

Olorala, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57

Zainduz osasun eta fitness zentrua zabaldu barri da Aretxabaletan. Hiru kideren inizatibaz sortu da. Jose Luis Eraña kideetako batek esan digunez, kirola eta osasuna batuko dira zentru honetan.

Jose Luis Eraña

"Osasunari emango diogu garrantzia"



- Zelako esperientzia izan da enpresa barria sortzea?
- Oso aberasgarria.
- Zenbat bazkidekin zabalduko da Zainduz?
- 150 lagun inguru daude matrikulatuta.
- Zenbat langile zaudete?
- Sortu, hiru laguneren artean sortu dugu enpresa. Hala ere, momentuz zazpi bat langile gaude.
- Enplegu eta barrikuntza saria jaso duzue, zer esan gura du sari horrek?
- INEMek "Lan eta zerbitzu berritzailei" ematen dien saria da. Osasun eta fitness arloan eskainiko ditugun zerbitzuengatik eman digute.
- Zer izan da sorreratik zailena?
- Dirua lortzea, bankuei proiektuan sinistu araztea.
- Hemendik aurrera zure bigarren etxea izango da hau?
- Edo lehena, gustura egoteko moduko txokoa izango da eta.
- Zein izango da zure lana?
- Denetik egingo dut, batez ere, masaje eta osteopatian zentratzea gura dut.
- Osasuna eta norbere burua zaintzea modan daude?
- Bai, oso modan daude.

- Zuk zeuk zelan zaintzen duzu zeure burua?
- Gimnasia klaseak emanez, osasun fisikoa mantentzen dut horrela. Horrez gain, elikadura ere zaintzen dut.
- Forman egoteko bi aholku.
- Ariketa fisikoan konstantzia, eta elikagai orekatua.
- Zer egiten duzu zure denbora librean?
- Aspaldian ez dut denbora libre gehiegi izan. Batez ere, irakurtzen eta ikasten pasatzen dut aisialdia.
- Behi eroen gaia dela eta, txuletarik jaten jarraituko duzu?
- Ez ditut askotan jaten, baina noizean behin jango ditudala uste dut.
- Nolakoa da zure izakera?
- Optimista naiz.
- Amets bat.
- Gauzatzen ari den hau.
- Zorionsu izateko modua.
- Norbere buruarekin gustura egon, eta egiten duzuna gustukoa izatea.
- Zer botatzen duzu faltan?
- Beharbada, denbora libre gehiago, eta eskiatzera urteeraxo bat egitea.



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68



**BASTER-ALDE
JATETXEA**


SASOIKO
JAKIAK
GIRO
ONENEAN

Galartza auzoa Tel.: 943 79 24 58 ARETXABALETA

3. IBILBIDEA

ARETXABAETA-BOLINAGA-AREANTZA-KORUETA-UGASTEGI-KARGALEKU-ELEIZABARRI-MENDIOLA-ARETXABAETA

Luzera: 14,3 kilometro - Denbora: 3 ordu 50'



Aretxabaletatik Bolinaruntz abiatuko gara. Atxurdin baserrira heldu baino lehenago, eskumatara Mendiolaran doan bide zaharra dago, baina guk Bolinaruntz jarraituko dugu. Bidea bukatu eta eskumatara Bolina baserrira dago, eta aurrerago ezkerretara Patxikuena. Baserri hauek pasa eta bide zaharra hartuko dugu, Mitarte Garai baserriraino jarraituz.

Aurrerago ezkerretara Arientzako kanposantua eta San Bizente ermita

daude. Arientzarrek urtarrilaren 22an ospatzen dute bertako eguna. Bidean gora eginez, ezkerretara Ardantza baserrira ikusiko dugu. Garai batean baserri ospetsua izandakoa, armarri bat du aurreko horman. Bidea jarraituz, Areantza auzoa pasatuko dugu. Auzoaren bukaeran Iraileko Andra Mari eliza dago. Irailaren 9an ospatzen dituzte bertako jaiak. Bidea jarraituz, Urkulu urtegiara iritsiko gara. Ezkerrean Ireban baserrira dago. Eskumatara eginez, iturri bat dago. Iturri ondotik gora abiatuz Kurtzebarriaino joateko bidea dago. Baina guk urkuluko urtegiaren aldamentetik joko dugu.

Koruetara heltzen garenean, eliza ondotik auzoa zeharkatu dezakegu, edo

bidetik jarraituz, auzoari buelta eman. Auzora doan bidea hartuko dugu. Eskumaldean Santiago Koruetako eliza dago. Hemendik Mendikurtza baserrira pasa eta Urkulu inguratzen duen bidea jarraituko dugu Urbaltzerarte.

Urbaltz izeneko ur depositora heltzen garenean, Arbeko erreka amaitzen den lekuan, eskumatara eta gorantz egingo dugu. Kantera pasatu eta laster iritsiko gara Arbe baserrira.

Harrobitik Ugasteira igotzeko bi bide ditugu:

Pistatik edo erreken magaletik. Pistatik joatea erosoagoa da. Errekatik, barez, bidea politagoa den arren, neguan arazoak izaten dira erreka gurutzatzeko. Bide biak goiko gainean elkartzen direnez, pistatik abiatuko gara.


Goraino heltzean Errekondo izeneko bidekurtzera helduko gara (1:50'). Ezkerrera hartzen badugu, Ugasteiko baserrietatik pasa eta Santikurtz ermitara joan daiteke, eta hortik aurrera Hiruatx (790) eta Ametzuela (771) eta Orkatategi (874) mendietara goaz.

Bidekurtzean eskumatara hartuz, aldatz batetik gora Larratxu aldera eramango gaitu. Larratxutik aurrera jarraituz, Arbeko zerrera joango gara. Baina hemendik ez goaz guk nahi dugun lekura.

Aurrera jarraituz, Arbela pasa (txabola bat dago ezkerrean) eta Munakola txara helduko gara. Bi pistarekin elkartuko gara, ezkerretara dijoanek Gainxuetatik Degurixara eramango gaitu. Gasoduktoa hartuko dugu guk.

Gasoduktoko bidea jarraituz, Sakonandietatik (923) pasatuko gara, eta aldatzean gora Kargalekura iritsiko gara (1.077).

Hemendik Apotza pasa eta Udaltxa eta Lezako arruera joko dugu. Ezker aldean Apotzakarta utziko dugu. Han iturri bat dago, eta eskumatara abiatuz,



Burdintxon txabolatik gora Kurtzebarri (1.146) joan gaitezke.

Gu beheruntz abiatuko gara Elizabarrirarte (806). Hemen Elizabarrirarte iturria dago, 1987. urtean barriztu zena. Txabola bat ere badago, Uxarteko txabola, eta San Juan Anteportamlatinam izeneko ermita ere bai (2:55'); San Juan Txiki izenaz ere ezaguna. Maiatzaren 6an ospatzen da bertako eguna.

Elizabarrirarte iturritik zuzen, ermita ezkerretara utzita, Martzelaietatik behera Mandobideko Dragalekuko tontorrera joan gaitezke, eta Mandobidetik aurrera Mendiolara. (3:30').

Edo bestela, Kurtzebarritik datorren pista jarraituz, Otondotik Narrukoatxpe pasa eta Urkia bakarrera jaitsi. Guk bide hau jarraituko dugu. (Urkia bakar, Uriaga baserriaren goialdean dagoen lekua da, Elizabarrirarte joateko atajua hartzen den tokia hain zuzen. Lehen Urkia haundi bat zegoen pista eta atajua bereizten zituena, baina orain 13 urte desagertu zen.)

Hemendik Uriagako laua (604m) oso gertu dago. Uriaga baserritik, kaminoz Atxagararte, eta hemen gura badugu, eskumako sendatik, eskumako gaztainondoan lurberri basoa eta ezkerretara Mendibitsuko txabola bitartetik, Mendiolako Dantzalekura jaitsiko gara.

Mendiolatik, gura izanez gero Elizondotik behera, Iturrondo iturritik pasa eta Olabena Baserritik behera jaitsi edo bestela Sakomosutik aurrera, monumentutik behera etorriko gara. Lehenengo errebutan bideeskerra dago, lehengo bidezaharra, Arkarazoko bidekurtzera jotzen duena, hortik etor gaitezke Atxabaltara (3:50').

* Bixente Urkiari (74 urte) eskerrak eman gura dizkiogu bere laguntzagatik.



San Juan Anteportamlatinam ermita elizabarrirarte dago

UGASTEGI AUZOA

Ugastegi Gipuzkoan dagoen auzorik altuena da. 762 metrotara dago. Ugastegiko baserrien eraikuntzak, Aretxabaletako udaletxeak zituen diru arazoengatik egin ziren, Koruetako parroquia zen Don Carlos de Segurarekin egindako truke baten ondorioz. Abadeak dirua aurreratu zion udaletxeari, eta horrek Ugastegiko terrenoetan zeuden 32.156 (49 hankako) estatu karratu eman zizkion.

Eraikuntzak bi arotan egin ziren, 1772-1780 eta 1823-1835 urteetan.

Abadeak zortzi urtetan eraiki zituen lehenengo baserriak, Behekoetxe, Erdikoetxe, Goikoetxe eta Iparralde. Hauexek ziren baserriotako maizterrak: Manuel de Uribeetxebarri, Domingo de Irigoras, Lorenzo de Yarza eta Nicolas de Emparantza. Urtero pagatzekoak, barrez, 20 anega gari ziku eta garbia, 20 ducado de vellon, gazta arropa bat eta kapoi bat ziren. Horrez gain, kanalean 24 libra zituen ahari bat eta lurra enkalatzeko obligazioa ere bazuen.

Baina hiru urte beranduago, inguruko juiuzio luzeenetariko bat izan zuten abadeak eta Lorenzo de Yarzak. Oñatin hasi eta Valladolideko Chancillerian bukatu zena, zortzi urte iraun eta gero.

Ugastegik Araotz elizateko ermita batekin konformatu behar izan zuen. Bertan euren elizkizunak egin, eta hildakoak lurperatzera Koruetara jaitsi behar izaten ziren. Anderoek ordu eta erdiko bidea zuten Koruetaraino.

GARBITU S. KOOP

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tel.: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 07 34 - 943 79 31 87

OSKAR
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4

Lie

LURRINDEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59



Hotzetik epeltasunera

Eguraldia eta behiak bezala zoratuko ete naizen beldur naiz. Neguko hotzari aurre egiteko beroki sendoa jantzi, eta izugarritzko beroa kalean. Aurreko astean, barrez, demaseko hotza. Behiak dagoeneko zoratu dira, eta beste animalia batzuk ere... Gurera ere iritsiko ete da izurritea? Espero dezagun ezetz.

Belarrietara kontu arrarorik iristen ez zaigun bitartean behintzat, jarraitu dezagun lasai-lasai gure gastronomia eta usadio ederrez gozatzen. Izan ere, **aratuste domekan** ondo gozatu genuen herritarrok. Animazio haundia izan zen kalean, mozorroak han eta hemen eta txalotzeko desfileak, gainera. Talde guztiek merezi izan zuten saria, baina denei ezin eman. Horrelaxe banatu zituen sariak epaimahaiak. 1. paterak; 2.a prozesioa; 3.a txaranga eta 4.a Peña Gallo. Gaztetxoetan, barrez, 1. pitufoak; 2.a piratak; 3.a baserri-zahar eta 4.a tenistak. Pitufek saria jaso zuten, baina eurek ezin izan zituzten bi sari banatu. Pitufen errifak erosi zenituztenontzat zerbaki sarituak hauexek izan ziren, 00564 eta 00356. Zeurea izan daiteke bat, beraz, arretaz begiratu eta Aretxagazetatik pasatu opa-

ri magikoa jasotzera.

Aratusteetako sariez gain, Saharako errefuxiatuentzat ere izan zen sariarik. Guk hemen majo pasatu genuen, baina **Joseba Larri-nagak** eta **Ramon Erañak** ere edarto pasa zuten Sahara aldean. Saharauek arreta beroa egin zieten, eta makina bat te probatu ostean, oso pozik etorri dira etxera. Handik esperientzia barribat ekarri dute, eta hemendik, barrez, hainbat opari eraman dituzte hara: erlojuak, eguzkitako betaurrekoak, ikas-materiala... Herritarrek ere eman dute laguntza, berauentzat eskerrikerri beroenak. Ez dakizue zelako pozik geratu ziren saharauek!

Ni neu ere pozik egoteko moduan nago. Atzo **emakumearen eguna** izan zenez, afari eder batekin ospatuen. Dena dela, egunero koan dago gakoa, eta gure berdintasunaren alde oraindik ere asko daukagu egiteko.

Herriko emakume batek, bestalde, martxoaren 15etik aurrera bere margo lanak jarriko ditu ikusgai Durana kaleko erakusketa txokoan. **Idoia Elexpuru** dugu emakume artista hau. Herriko emakumeak ere hasi dira euren arte lanak erakusten. Ordua zen!

M. J. Aretxaga



Axa mixa zilarra

J.M. Olaizola "Txiliku"

Marrazkiak, Elena
Odriozola
Elkarlanean, 2000

Liburu hau jolas egiteko da. Bertan Txilikuk igarkizunak, ipuinak, kantar, hitz jokoak, jolasak eta beste zenbait bitxikeria bildu ditu.

Bi partetan zatitua dago liburua: alde batetik zerbaki bakoitiak eta bestetik bikoitiak. Igarkizunak alde batetan agertuz gero hauen erantzuna bestean aurkituko duzue. Atzetik aurrera edo aurretik atzera, edozein lekutan liburua zabaldu eta jolas egin daiteke liburu honekin orrialde bate-tik bestera salto eginez, gainera amaieran aurkibidea ere badu gauza konkreturen baten bila dabilenarentzako.

Elena Odriozolaren ilustrazioak ere oso aproposak eta eder-rrak dira. Liburu dibertigarria, beraz, 8 urtetik aurrera erabiltzeko modukoa eta gure ohiko jolas eta kantar gogora ekartzeko ere balioko diguna.

Joseba Lopez de Armentia

EUSKARA ZUZENTZEN

Hona hemen gaurko akatsa.

Galdera eta erantzun okerrak:

- Gaur zeinen zorionak die?
- Gaur Juneren zorionak die.

Galdera eta erantzun zuzenak:

- Gaur zeinen urtebetetzia da?
- Gaur zeinen eguna da?
- Gaur Juneren urtebetetzia da.
- Gaur Juneren eguna da.



LIBURULEGIKO IXOKOY

MARTXOA

8-15

■ **COPRECI 1961-2001 ARGAZKI ERAKUSKETA**
Argazki artxiboak Copreciri buruzko argazki erakusketa antolatu du. Egunero egongo da zabalik Durana, 30eko erakusketa txokoan. Ordutegia astegunetan 18:00etik 20:00era eta jaiegunetan 12:00etatik ordu 14:00etara eta 18:00etik 20:00era.

10 ZAPATUA

■ **TAKOLO PIRRIIX ETA PORROTX**
Takolo, Pirriix eta Porrotx pailasoak egongo dira Aretxabaletako kiroletxean arratsaldeko 5etan. Sarrerak aurrez ludotekan 300 pezeta eta takilan 500 pezeta.

11 DOMEKA

■ **LARRINOKO ELIZAREN INAUGURAKETA**
Meza eta inauguraketa ekitaldia izango dira 12:30ean, eta ondoren luntxa egongo da.

■ **MENDI URTEERA**

Zaraia mendi taldeak Indiagane eta Itxagane Arabako mendietara urteera egingo du. Urteera goizeko 8:00etan Zaraiaoko lokaletik.

■ **MENDI URTEERA**

Murrukixo mendi elkarteak Euskal Herriko mendietara urteerak izeneko programaren barruan, lehen urteera egingo du Balerdi mendira. Bazkaltzeko buelta egingo da. Urteera goizeko 8:30ean izango da Durana kaletik autobusean.

15 EGUENA

■ **HERRIKO LOKUZIOEI BURUZKO HITZALDIA**
Loramendi euskara elkarrearen eskutik lokuzioei buruzko hitzaldia izango da. Asisko Urmenetak emango du udaletxe zaharrean 19:00etatik aurrera.

17-18

■ **TRABESIA URTEERA**

Murrukixok Pirinoetara trabesia urteera antolatu du. Informazio gehiago 943 79 93 74 telefonoan.

18 DOMEKA

■ **MENDI URTEERA**

Murrukixo mendi elkarteak gaztetxoentzat mendi urteera antolatu du. Elizabarri-Lete-Eskoriatza-Aretxabaleta. Urteera ordua 9:30ean Murrukixoko lokaletik.

15-1

■ **MARGO ERAKUSKETA**

Idoia Elexpuren margo lanak ikusgai egongo dira martxoaren 16tik apirilaren 1a bitartean Durana kaleko erakusketa txokotan. Ordutegia astegunetan 18:30etik 20:30era eta astebukaeretan 12:00etatik ordu 14:00etara eta 18:30etik 20:30era. Lehenengo egunean luntxa izango da.

IKASTAROAK

■ **INTERNET IKASTAROA**

Saretxo informatika taldeak internet ikastaroa antolatu du. Martxoaren 17an hasi eta ondorengo lau zapatutan emango da, goizeko 11:00etatik ordu batera bitartean. Oinarrizko ikastaroa izango da, interneta zer den eta nola erabili behar den erakutsiko da. Horrez gain posta elektronikoaren erabilera ere azalduko da. Izen ematea Express tabernan, Aretxagazetan edo eta Saretxoko buzoian izenabizenak eta telefonoa utzita egin daiteke. Informazio gehiago 943 79 10 51 telefonoan (Alberto).

IKASTAROAK

■ **GRAFOLOGIA IKASTAROA**

Loramendi euskara elkarretek grafologia ikastaroa antolatu du. Martxoaren 12an hasiko da eta bost astelehenetan emango da, 19:00etatik 21:00etara. Emalea Irune Ibarra izango da. Informazio eta argibide gehiago 943 77 09 70 telefono zenbakian.

BALITZAKUK (Hikaz berbetan)



Mikel Arroiabe

Zorion agurrak



Sara Aranzabal
Martxoak 1
(3 urte)
Aitatxo, amatxo
eta Saioaren partetik
muhu haundi
bat.



Garikoitz Igartua
Mendieta
Martxoak 4
(8 urte)
Zorionak etxeko-
en partetik.



Eneko Lopez de
Armentia
Martxoak 5
(6 urte)
Zorionak eta muxu
haundi bat etxeko-
en partetik.



Ibon Urkia
Martxoak 7
Zorionak zure
lagunen partetik.



Txomin Perez
Martxoak 9
Zorionak lagunen
partetik.



Unai Uralde
Martxoak 12
Zorionak eta ondo
pasatu zure urte-
betetze egunean.
Zure lagunak.



Saioa Karretero
Martxoak 12
Josu, Sara eta ama-
txon partetik
zorionak.



Ganitz Zubimendi
Martxoak 12
Zorionak eta ondo
pasatu amaren
partetik.



Begoña Errasti
Martxoak 15
Zorionak izeba eta
ondo pasatu eguna
Alaitz eta Eñauten
partez.



Amaia Agiriano
Martxoak 19
Nahiz Mendiolan
nahiz Erroman
zorionak eta muxu
haundi bat Alaitz
eta Eñauten partez.

Sail honetan norbait zoriondu gura baduzu Aretxagazetara zuzendu (Durana, 11) edo eta 943 79 86 21 telefonora deitu.

Aretxabaleta

• Almen	943 71 49 07
• Aretxagazeta	943 79 86 21
• Telebista	943 79 86 21
• Basotxo	943 77 09 81
• Buskaltegia	943 79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	943 79 10 00
• Hezibide Elkarte	934 79 31 32
• Industrialdea	943 79 62 80
• Institutua	943 79 79 00
• Kiroletxea	943 71 26 28
• Kultur-Etxea	943 71 10 27
• Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
• Kurtzebarri B.H.I.	943 79 57 40
• Liburutegia	943 79 10 00
• Loramendi E.E.	943 77 09 70
• Ludoteka	943 79 05 81
• Mankomunitatea	943 79 30 90
• Murruxo M.E.	943 79 93 74
• Musika Eskola	943 79 36 50
• Osasun zentroa	943 79 74 58
• Otorora	943 71 24 06
• Parrokia (Bulegoa)	943 79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	943 77 03 77
• Postetxea	943 79 28 31
• Santa Rita Ikast.	943 79 17 00
• Saretxo	943 71 26 56
• Taxi Geltokia	943 79 22 33
• Udal Bulegoak	943 79 10 00
• Udaltzaingoa	943 79 10 52
• Urats Gain	943 79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	943 79 14 39
• Bergara	943 77 91 06
• Eskoriatza	943 71 44 07
• Oñati	943 78 04 11

Larrialdiak


• SOS Deiak	112
• Eskualde-Ospitalea	943 03 53 00
• Ertzaintza	943 79 71 99
• Gurutze-Gorria	943 76 55 76
• Larrialdiak	943 46 11 11
• Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

Garraioak

• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	945 23 02 02
• Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15

Txistuak • Txaloak

Gaur egun, sortzen dugun zabor kopurua izugarri handia da. Ez dago zakarra uzteko tokietara begiratzea besterik. Udaletxeak, gainera, zabor hori uzteko lekuak jarri ditu herri osoan. Hala ere, batzuk ez dute errespetatzen, eta nahi duten tokian, gehienetan zakarrontzietatik kanpo, uzten dituzte beraien poltsak. Ondorioz, gauean ibiltzen diren kaleko txakur eta katuek, poltsak apurtu eta zabor guztia sakabanatzen dute. Aste honetako **txistua**, baina, zabor hori jasotzen duten langileentzako da. Haizea dabilen gauetan zabor poltsak, sarri, bere lekutik mugitzen dira. Zabor-biltzaileek lekuan bertan dauden poltsak jasotzen dituzte, baina ez handik kanpo haizeak eramandakoak. Goizaldean, hauek egin ez duten lana, kale-garbitzaileentzako izan ohi da.



Jaiotakoak

■ **Dorleta Urkia Igartua**
Otsailaren 20an.

Hildakoak

■ **Patxi Urzelai Unzueta**
Otsailaren 26an. 88 urte.



Leixargaratera lanera

Orain 30 urte egin zen Leixargarateko txabola. 1971ko irailaren 5ean inauguratu zen, Udako mendi taldearen inizatibaz. Gero, txabolako egoera mantendu eta hobetu aldeira hainbat lan egin dira. Erretratuko mutilek, esaterako, txabola inauguratu eta hiru hilabetera, abenduaren 26an, txabolako atzealdeko muna garbitu zuten. Txabolak atzean zuen lurra kendu behar izan zuten horretarako.

Baina ez zuten ez lan makala izan. Lurra erdi izoztuta zegoen, edurra, barrez, orkatilaraino eta larri ibili ziren lanak bukatzeko.

“Bergaresa”-ko autobusean Leintz Gatzagaraino joan, eta handik igo ziren txabolara. Goiza eman zuten lanean, eta ondoren, ondo merezitako baba jana izan zuten. Babak apur bat erre-ata atera zitzaizkion Santos Idigorasi, baina goseab dagoenean, gaitzerdi.

Goian ezkerretik eskuma-

ra: Karmelo Igartua, Juan Mari Gorostiza, Jose Luis Elkorro, Xabier Zubizarreta, Ramon Eraña, Santos Idigorasi, Jose Luis Uralde, Migel Uribetxebarria, Daniel Igartua, Migel Igartua.

Behean ezkerretik eskumara: Jose Antonio Jauregi, Jose Luis Galdos, Jose Luis Arana, Jabier Mujika. Argazkian erretratugilea falta da, German Gonzalezek atera zuen argazkia.

Argazkia eta informazioa: German Gonzalez.




LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55




OPEL CORSA
BERRIA

NORTE GARAJEAK, S.L.



Basabe Poligonoa A-13 20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 71 20 03 ● Fax: 943 77 16 20

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

Liderra segurtasunean

Egiazta ezazu

“Erabiltzaile eta kontsumitzaileen Erakundeak (OCU), “crash test” delakoaren bitartez egindako ikerketaren arabera, Ford Focussek puntuaziorik altuena lortu du segurtasunean, beste 5 modelorekin batera”

AUTOPISTA aldizkariko 2.064. zenbakian argitaratua

Ford Focus ****
Mercedes Clase A ****
Opel Astra ****
Renault Mégane ****
Audi A3 ****
VW Golf ****
Citroën Xsara ***
Peugeot 306 ***
Toyota Corolla ***
Daewoo Lanos ***
Honda Civic ***
Fiat Brava **
Ford Scort **
Hyundai Accent **
Mitsubishi Lancer **
Nissan almera **
Suzuki baleno **



MUGARRI



DEBA GARAIKO
BANATZAILE OFIZIALA

Araba etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 07 44 / 943 79 07 54